

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Gobernuaren 146.187 euroko diru-laguntza jaso duten zolaketa, sareen berritze eta argiztapeneko obrak inauguratu dira Olaguen

*Ekitaldian Esparza kontseilariak eta Toki Administrazioko zuzendari nagusi Francisco Pérez Arreguik parte hartu dute*

Viernes, 28 de junio de 2013

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioko kontseilari José Javier Esparzak Olagueko Kontzejuko (Anue) zolaketa, sareen berritze eta argiztapeneko obrak inauguratu ditu gaur goizean. Obra horiek Nafarroako Gobernuaren 146.187 euroko diru-laguntza jaso dute, 2009-2012 aldirako Tokiko Azpiegituren Planaren eskutik. Obren barnean sartzen da, gainera, hilerriko bidea konpontzea.



Esparza kontseilaria, Francisco Pérez, Raúl Pascal eta Julián Otondo, Olagueko plazan.

Ekitaldian parte hartu dute ere Toki Administrazioko zuzendari nagusi Francisco Pérez Arregui-k, kontzejuko lehendakari Julián Otondo-k, eta Anueko alkate Raúl Pascal-ek. Bere agerraldian, kontseilariak udalerritxikietan bertako bizi-baldintzak hobetzeko lanean ari diren diren guztiei eskerrak eman dizkie, eta beren jarraipenaren aldeko apustua egiten dutenak toki-maparen erreforma berrian.

Lan horietan plaza nagusiaren zolaketa berria egin da, udalerriko zeharbideari erantsita dagoena, 1.273 m<sup>2</sup>-ko azalera: haietatik, 839 m<sup>2</sup>-an hormigoia erabili da, eta 334 m<sup>2</sup>-an galtzada-harria. Gainera, zintarriko 437 metro lineal jarri dira kaliza-harriarekin eta galtzada-harri alakatuarekin egindakoa, espaloia mugatzeko eta euri-urak hartzeko.

Bestalde, euri-urak hartzeko sarea berri da zonalde berean PVC hodiekin, eta 9 sifoi-hustubide jarri dira sare berriari lotuta PVC hodiekin ere. Sare horrek urak udalerriko ibairaino bideratzen ditu eta bertara bideratutako bi irteera ditu.

Azkenik, udalerriko argiztapenean lanak egin dira, plazan (lurperatutako argien kanalizazioa), zeharbidean eta San Juan kalean; 20 argi-puntu berri eta 13 argi jarri dira.